

Usurbilgo Udala

2016KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta (18:10ean bertaratu da)
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko abenduaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO AZAROAREN 21ETIK ABENDUAREN 2RA (2016/1128-2016/1172).

Alkatetzak 2016ko azaroaren 21etik abenduaren 2ra bitartean (2016/1128– 2016/1172) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUARI DAGOKION BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alkateak azaldu du puntu hau diktaminatu gabe datorrela, izan ere Hirigintza batzordea deitu bazen ere, bilkura egunean ez zen quoruma lortu eta ezin izan zen batzordea egin.

Batzarkideek aho batez berretsi dute puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Alkateak esan du prozedura baten azken urratsa litzatekeela oraingo hau, jendaurreko epean ez denez alegaziorik aurkeztu, orain aldaketa behin betikoz onartzea izango litzateke.

Josune Urkolak esan du beraiek abstenitu egingo direla. Alkateak lehen aipatu duen ezohiko bilkurara ezin izan zuten etorri eta ez dutenez informazio nahikorik abstenitu egingo direla esan du, hala ere, garbi utzi du ez daudela proiektu honen aurka.

Fermin Orue-Echevarriak ere abstenitu egingo dela esan du.

Alkateak azpimarratu du gaiari buruzko informazio teknikoa aurreragoko batzorde batean eman zela eta ez dagoela aldaketarik.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz honako erabakia hartu dute:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2016-0365

AURREKARIAK

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2008ko irailaren 30ean, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Barne Erreformako Plan Bereziaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioak erantzutea eta Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko Barne Erreformako Plan Berezia BEHIN BETIKOZ onartzea, udal arkitektoak 2008ko ekainaren 17an emandako txostenean jasotako baldintzekin.

Bestalde, Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2009ko otsailaren 24ean, sustatzaileek 2009ko otsailaren 17an aurkeztutako Plan Bereziaren Testu Bategina onartu zuen.



Usurbilgo Udala

Erabaki hauek eta Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ordenantza arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 40. aldizkari ofizialean argitaratu ziren 2009ko martxoaren 2an.

PLAN BEREZIAREN ALDAKETA

Orain berriz, JAUREGUIZAR, S.L. enpresak, eremuan jabego haundiena duenak, 2016ko uztailaren 20ean, 2822 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETARAKO proposamena aurkeztu du Udalak onar dezan.

Udal idazkariak eta udal arkitektoak egindako txostenak irakurri ondoren, Alkateak, 2016ko irailaren 30ean, 2016/0936 dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETA hasieraz onartzea udal arkitektoak 2016ko irailaren 17an emandako txostenean zehaztutako baldintzekin.

BIGARRENA: Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETA jendaurreko erakustaldian jarri aurretik, udal arkitektoak 2016ko irailaren 17an emandako txostenean zehaztutako zuzenketak jaso beharko dira aldaketarako dokumentuan eta interesatuak udalean aurkeztu beharko du.

HIRUGARRENA: Behin dokumentazioa aurkeztu eta udal zerbitzu teknikoek ontzat eman ondoren, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuak dokumentua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

LAUGARRENA: Barne Erreformatarako Plan Bereziak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei erabaki honen berri ematea.

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Alkateak, 2016ko irailaren 30ean, 2016/0936 dekretuaren bidez hartutako erabakia kontutan izanik, JAUREGUIZAR enpresak, 2016ko urriaren 21ean eta 2016ko urriaren 24ean, dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazio osagarria aztertu ostean, ondoko txostena eman zuen 2016ko urriaren 24ean:

EE2016_01_007

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreaki
PLANEAMENDUA
A-59 UGARTONO EREMUKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN
BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTAZIO
GEHIGARRIARI TXOSTENA



Usurbilgo Udala

KOKAPENA: A-59 UGARTONDO eremua, Usurbil
ESKATZAILEA; JAUREGUIZAR S.L.
ESKAERA DATA; 2016ko urriaren 21a eta urriaren 24a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ01/2016-0365

AURREKARIAK:

- 2016ko uztailaren 20an Jaureguizar S.L.-ren izenean A-59 UGARTONDO eremuko Barne Erreformatarako Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala aurkeztu da.
- 2016ko irailaren 17an udal arkitektoak ALDEKO txostena idatzi du baldintzekin.
- 2016ko irailaren 30ean Alkatetzaren 2016/0936 Dekretua, Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala haseraz onartuz, baldintzekin.
- 2016ko urriaren 21 eta 24an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:

HZ.01/2015-64: A-59 UGARTONDO eremuko Xehetasun Azterketa
HZ.03 / 2013 – 0030: A-59 UGARTONDO eremuko Urbanizazio Proiektua.
HZ.04 / 2015 – 0406: A-59 UGARTONDO eremuan Babes Ofizialeko 46 etxebizitzaren Oinarrizko Proiektua.
HZ.09 / 2015 – 0256: A-59 UGARTONDO eremuan 46 etxebizitza tasatuen Oinarrizko Proiektua.
HZ.01 / 2005 – 0380: A-59 UGARTONDO eremuko Plan Berezia.

TXOSTENA


Iñaki Baztarrika jaunak, Jaureguizar S.L.-ren izenean, A-59 UGARTONDO eremuko Barne Erreformatarako Plan Bereziaren Aldaketa Puntualari dokumentazio gehigarria aurkeztu dio. Aurkeztu dokumentazioa da; idatzizkoa (B. ORDENANZAS REGULADORAS atala zuzendua) eta planuak (II.1 eta II.4 zuzenduak).

Dokumentazioa aztertuta, berau ONTZAT hartzen da eta beraz, Plan Bereziaren Aldaketa dokumentuarekin batean jarri beharko da jendaurrean. Gainontzean, aurreko txostenetan ezarritako baldintzak berresten dira.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2016ko urriaren 24an.
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune



Usurbilgo Udala

Txosten honetan, udal arkitektoak Plan Bereziaren aldaketarako dokumentua aztertu ostean 2016ko irailaren 17an emandako txostenean ezarritako baldintzak berresten ditu. Besteak beste ondokoa:

“Aurkeztu den Plan Bereziaren Aldaketak berariaz aldatetzat jotzen ez duen beste akats edo nahasketaren bat egongo balitz dokumentuan, 2009ko Plan Bereziaren Testu Bateginean jasotakoak indarrean jarraitzen duela ulertuko da eta ez da espreski aldatetzat hartuko.”

JENDAURREKO EPEALDIA

Hartutako erabakia kontutan izanik, Plan Bereziaren aldaketa jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (206. zenbakia): 2016-10-31
- Berria: 2016-10-28
- Gara: 2016-10-28
- El Diario Vasco: 2016-10-30

Jendaurreko epealdia 2016ko azaroaren 29an amaitzen zen. Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean EZ da alegaziorik aurkeztu.

Alkatearen proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENENGOA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren Aldaketaren behin betiko onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuari dagokion Barne Erreformatarako Plan Bereziaren ALDAKETA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketan honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

3.- USURBILGO UDALAREN AHOTS ETA DATU KOMUNIKAZIORAKO SAREAREN BEHARREZKO ELEKTRONIKA HORNITZEA, SAREAREN MANTENTZE ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO LANAK BURUTZEA, SAREAREN KUDEAKETA ETA INSTALAKUNTZA ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Batzarkideek, hasteko, puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, gai-zerrenda sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak adierazi du kasu honetan ere puntu hau ibilbide baten azken urratsa dela. Aurreko plenoan esleipenaren irabazlea Linea 3000 zela esan bazen ere, epe bat eman zitzaien dokumentazioa aurkezteko eta hau aurkeztu ondoren, gaurkoan kontratuaren esleipena egiten da.

Alkatearen proposamena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Esp. zkia: ID.05/2016-0377

Espedientea:

Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emateko kontratua.

Aurrekariak:

Udalbatza Plenoak, 2016ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu zuen Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko publizitate gabeko prozedura negoziatua.

Gonbidapena 3 enpresei egin zitzaien. Eskaintzak aurkezteko epearen barruan honako enpresa hau aurkeztu da: Linea 3000, SL.

Aurkezturiko eskaintza plegu administratiboetan ezarritakoaren arabera baloratu zen eta Udalbatza Plenoko 2016ko azaroaren 29ko erabakiaren bidez, eskaintza onena



Usurbilgo Udala

Linea 3000, SL enpresarena zela zehaztu zen. Horren baitan, erabaki horren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamar lan eguneko epean oinarri administratiboetako 28. klausulan zehazten diren agiriak eta bermea aurkeztu zitzala agindu zitzaion enpresa honi. Emandako epe barruan enpresak eskaturiko agiri guztiak zuzen aurkeztu ditu.

Pertsonal eta Kontratazio teknikariak txostena egin du.

Aplikagarria den legedia:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Dekretu legegilearen bidez onartua
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- Urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legea.

Hau guzia horrela, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA


LEHENA: Linea 3000, SL enpresari esleitzea Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronik hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emateko kontratua, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

BIGARRENA: Hileko prezioa 280 eurokoa (BEZ barne 338,80 euro) izango da. Kontratuko zerbitzua 2017tik aurrerakoa izango denez, eta 2017ko aurrekontua oraindik onartu gabe dagoenez, oraingoz gasturik ez onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki hau LINEA 3000, SL enpresari jakinaraztea eta Administrazio Baldintza Zehatzen Agirian ezarritako epean Udalera kontratua sinatzera etortzeko dei egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri IZT. KOOP. E., SAREMATICA SL, Obra eta Zerbitzu sailari eta Kontu-hartzaitza sailari ematea.”

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

4.- 2017KO AURREKONTU PROIEKTUAREN HASIERAKO ONARPENA.

18:10 direnean, Jone Urdanpilleta zinegotzia bertaratu da.

Alaitz Aizpuruak hartu du hitza eta adierazi du aurrekontuak diktaminatuta datozela eta hauen inguruan hiru batzorde behintzat egin direla.

Urteko azken pleno honetan aurrekontu hauen ibilbide eta zertzelada nagusiak aipatu nahi izan ditu.

Udal jardunean herritarren eskaerak eta nahiak konstanteki jasotzen dituztela esan du. Udal gobernu hau iaz hasi zen gobernu programaren lanketarekin, zeina modu zabal eta parte-hartzailean burutu zen, bai kanpora begira herritar eta eragile desberdinekin, eta baita barrura begira udal teknikariekin. Aurrekontu hauek osatutako gobernu programa horri erantzuten diela azaldu du.

Aurrekontuen ibilbideari dagokionez, azaroaren 9an aurkeztu ziren batzordean, azaroaren 24ra arteko epea utzi zen ekarpenak jasotzeko eta hirugarren batzorde bat egin zen ekarpen horiek aztertzeko. Aurtengo honetan oposizioak ez duela proposamen edo emendakinik egin esan du eta, beraz, bat egiten dutela ulertzen dute.

Kontutan hartutako irizpide eta printzipioak zeintzuk izan diren azaldu ditu. Hala nola, herritarren eskubideak eta ongizate egoera indartzea, enplegu duina sustatzea eta gizarte alorrean murrizketarik ez egitea, berdintasun politikak bultzatzea, hizkuntza normalizazioa, herrigintzan aritzen diren eragileei laguntzak ematea eta laguntza horiek parte-hartzeko modu bat bezala ere ulertzen direla gaineratu du. Jarraitu du esanez ingurumen politikak aurrera eramateko aurrekontuak ere badirela eta enplegu publikoaren defentsa ere egiten dutela.

Aurrekontuak egiteko orduan, lehenengo ariketa sarreren kalkulua egitea izaten dela eta hor askotan aipatzen duten bezala zuhurtziaren printzipioa oso garrantzitsua izaten dela adierazi du.

Diru-sarrerak 2016koak baino %3,29 gehiago, gastu arruntak %1,45 gehiago eta inbertsioak %23,26 gehiago direla azaldu du.



Usurbilgo Udala

Jarraian, inbertsio nagusienak aipatu ditu, hala nola, Etxebeste eta Irutasun kaleen berrurbanizazioa, hilerri berriaren handitzea, Galtzaragainako plazaren berritzea, Oiardoko aireztapena, Kale Irekiak proposameneko inbertsioak eta Txokoaldeko zubiaren legeztatze proiektua egitea.

Bestalde, aurrekontuetan badirela esan du partida konkretu bat ez duten ekimenak baina kontutan hartu direnak, hala nola, Aginako espaloia konponketa, Kalezarko eskaileren konponketa eta Zumarteko birgaitze lanak.

EAJren eskaerari erantzunez, Zumarteko birgaitze lanen kasuan memorian jasota dagoela zehaztu du. Gaineratu du 2016an proiektua egiten ari direla eta behin proiektua eta aurrekontua definituta daudenean, hori egikaritzeko azterketa finantzieroa egitea aurreikusten dela 2017an. 1.000.000 euro inguruko proiektua izango dela aurreikusten da eta Udalak aurre egin ahal izango diola eta finantza bideak lortzeko aukera izango duela uste bada ere, aurrekontuetan sartzeari ez dela egokia ikusi aipatu du zehaztasun asko falta direlako.

Parte-hartzeak garrantzi handia duela adierazi du eta kale irekien prozesurako 40.000 euro aurreikusten direla esan du.

PSE-EEK egindako eskaerari erantzunez, konpromiso bat erakutsi nahi izan dutenez memorian jaso dela dio 2017an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartzen dutela Usurbilgo eskolen egoera zein den aztertu eta ibilbide orri bat finkatzeko.

Josune Urkolak adierazi du ez dituztela eskaerak formalki aurkeztu, baina desadostasunak bai agertu dituztela eta horiek aurrekontu hauetan ez direla aintzakotzat hartu salatu du. Inbertsioekin ez daudela ados adierazi du eta bereziki Zumarteko proiektuekin. Memorian jasotzen bada ere, ez aurrekontuetan, eta memoriak aurrekontuetan jasotzen dena esplikatzen izan beharko lukeela uste dute. Beraiek eskatzen zutena zen aurrekontuetan jasotzea. Hori dela eta, aurka bozkatuko dutela esan du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio lehenengo batzordean alkateak argi eta garbi azpimarratu zuela aurrekontuak modu parte-hartzaile batean arituta osatu dituztela, eta beraientzat garrantzitsua dela beste alderdiekin konpartitzea eta beraien ekarpenak jasotzea. Hori iaz hain ondo egin ez bazen ere, aurten horretan saiatu direla azpimarratu du eta hiru batzorde ere egin direla.

Lehenengo batzordea aurrekontuak aurkeztu eta zeuden galdera edo zalantzak argitzeko egin zen. Bigarrena beste alderdien proposamenak aurrez aurre aurkezteko egin zen, horrela orain arte egin den moduan soilik idatziz ez aurkezteko. Azkenik, hirugarren batzordean proposamen horiei erantzuna eman eta diktaminatu egin zen.

Bere ustez lehenengo batzorde horretan proposamen edo emendakinik, osotasunezkoak edo partzialak, ez zituzten jaso. Emendakinak proposamen



Usurbilgo Udala

konkretuak direla esan du, "hau sartzeko hau kentzen dugu". Bigarren batzordean azaldu zituztenak galderak, zalantzak edo desadostasunak izan zirela zehaztu du, baina ez proposamenik. Jaso duten proposamen bakarra izan da Zumartekoa sartzea, eta partida hori zergatik ez dagoen aurrekontuetan jasota jada esanda eta arrazoituta dagoela adierazi du. Bigarren batzorde hori egin ondoren, ikusi zuten bazeudela zenbait kontu aurrekontuetan jasota ez zeudenak baina merezi zutenak proposamenean jasotzea, hori horrela memoria ere egin dela esan du. Beste horrenbeste, Usurbilgo eskola zentroen egoera dela eta hartutako konpromisoa.

Josune Urkolak adierazi du Zumartekoa proposamen bat dela, nahiz eta idatziz ez duten ezer aurkeztu.


Fermin Orue-Echevarriak adierazi du iaz bezala aurten ere aurrekontuak babesteko kondizio bat jarri zuen, hain zuzen ere, eskola publikoarekin pausoak ematen hastea. Iaz erantzuna ezezkoa izan zenez aurkako botoa eman zuen. Aurten batzordean harremanetan egon dira eta adostasuna lortu dute memorian borondatea azaltzeko eta Jaurlearitzarekin lehenengo pausoak ematea ikusteko ea Jaurlearitzak ze posibilitate duen Usurbilen eskola publikoa edukitzeko. Harreman horiekin datorren hilean hasiko direla eta hiru taldeek parte hartuko dutela adierazi du. Ikusiko dutela esan du ze pauso eta ze norabide lortzen duen gaiak.

Abstenitu egingo dela adierazi du.

Alkateak adierazi du jaso dituzten oharra eta komentarioak bai batzorde bileretan eta baita gaur ere, plasmazio zaila daukatela aurrekontu eskeman, gehiago direlako posizio politiko edo gai jakin batzuetan egon daitezkeen planteamendu desberdinak Ferminen kasuan, adibidez. EAJren kasuan, ikusten duena da ez daudela desados funtsean. Egin dituzten saio guztietan zerbait nabarmendu bada izan da bai EAJ eta baita EH Bildu ere egitasmoaren alde daudela. Zerbait ikusi bada izan da aurrekontu hauen edukian baino egotekotan irizpide teknikoetan dagoela desadostasuna. Irizpide tekniko horiek nabarmendu izan dituzte EAJren ustez logikoagoa delako oraindik zehaztu gabe dagoen zerbait aurrekontuetan sartzea, aldiz, gobernu taldea saiatu izan da esplikatzen zergatik, beraien ustez, oraindik gastuak zenbaterainokoak izango diren jakin gabe, oraindik jakin gabe kanpo laguntza gure finantziarioa nola izango den, iruditzen zaie zentzu gehiegirik ez duen ariketa dela. Baina funtsean adostasuna nabarmendu dute eta memorian jaso dute.

Bestalde, eztabaidan jardun zirela aipatu du mantentze partidak ziren, inbertsio partidak ziren. Baina hor ere funtsean eztabaida tekniko bat zegoela ikusi zuten.

Beraz, jaso duten ondorioa da aurrekontuei begiratzuz gero eta edukiari eta hemen planteatzen den eskemari begiratzuz gero, ez dagoela oinarrizko edo funtsezko desadostasunik. Hori horrela, hemen egiten den bozketan horrek isla eduki beharko lukeela iruditzen zaie.



Usurbilgo Udala

Amaitzeko, azpimarratu du momentu honetan ez dakitela ze proposamen konkretu jaso beharko luketen, Zumarteren afera hori kenduta, PNVk aldeko bozka eman dezan.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“2017 ekitaldirako Aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Alkateak 2016ko azaroaren 9ko Ogasun Batzordean. Geroztik, beste bi Ogasun Batzorde egin dira, azaroaren 24an, zuzenketak aurkezteko eta abenduaren 14ean Udalbatzarrerako irizpena emateko.

Azken batzorde honetan, beharrezko azalpenak eman eta gero, bozketara jo da.

Ogasun Batzordeak abenduaren 14ean osaturiko irizpenean, gehiengoz, EH Bilduren aldeko botoekin (Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta) eta EAJren (Josune Urkola) eta PSEren (Fermin Orue Echevarria) abstentzioarekin Udalbatzari luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

1.- Alkatearen behin betiko 2017ko Aurrekontu Proposamena behin-behingo onartzea, hurrengo laburpena duena, eta erantsirik doan Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua ere biltzen duena:

USURBILGO AURREKONTU OROKORRA 2017

SARRERAK	2017
I Zerga zuzenak	2.889.200,00
II Zeharkako zergak	440.000,00
III Tasak eta besteak	2.166.325,00
IV Transferentzia arruntak	5.034.712,00
V Ondare sarrerak	50.900,00
Sarrera arruntak:	10.581.137,00
VI Inbertsioak besterenganatzea	476.327,00
VII Kapital transferentziak	0,00
IX Finantza pasiboak	0,00
Kapital sarrerak:	476.327,00
SARRERAK GUZTIRA	11.057.464,00
GASTUAK	2017
I Langile gastuak	3.800.000,00
II Ondasun eta zerbitzu arruntak	4.796.686,00



Usurbilgo Udala

III Interesak	20.000,00
IV Transferentzia arruntak	800.873,00
Gastu arruntak:	9.417.559,00
VI Inbertsio errealak	1.220.837,00
VII Kapital transferentziak	84.068,00
VIII Finantza aktiboen aldaketa	0,00
IX Finantza pasiboen aldaketa	335.000,00
Kapital gastuak:	1.639.905,00
GASTUAK GUZTIRA	11.057.464,00

2.- Behin hasieraz onartutako Aurrekontu Proiektua jendaurrean jartzea 15 egunez Irargari Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

3.- Jendaurreko epea iraganik, Aurrekontu Proiektua behin betirako onartua gelditzen denean, kapituluka laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bere kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.”

Bozketaren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

5.- 2017KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Alaitz Aizpuruak adierazi du aurrekontuekin batera onartu beharrekoak izaten direla Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa, eta hauek Pertsonal batzordetik pasata datozela.

Ez dagoela aldaketa esanguratsurik esan du. Plantilla bere horretan mantentzen dela esan du eta Lanpostuen Zerrendan, operario 8-ren kasuan, gida-baimenarena jaso gabe zegoen eta hori jasotzen da. Beste aldaketa da euskara perfilak egokitu egin direla Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin bat etorritz.

Bestalde, operario 4ren kasua aipatu du. Plaza hori duen langileak urria bitarteko erreserba egina zeukan ezgaitasun batengatik, baina Gizarte Segurantzaren ebazpena oraindik jaso ez denez erreserba hori mantendu egin da, nahiz eta denbora gutxian jasotzea espero duten.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Alde batetik, Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. Artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla onartu behar da.

Bestetik, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2017eko azaroaren 30ean egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarria
- Abstentzia: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatza plenoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2017ko Lanpostuen Zerrendari eta Plantilla Organikoari hasierako onarpena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikotzat onartu ondoren, bi dokumentuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Bozketaren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

6.- MOZIOA: POLIOMILITISAK JOTA IZAN ZIREN ETA GAUR EGUN ONDORIO BERANTAR EDO POST-POLIO SINDROMEAK (PPS) JASATZEN ARI DIREN LAGUNENTZAT SOSTENGUA.

Hasteko, batzarkideek puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak mozioaren azken puntua irakurri du.

Batzarkideek, Euskadiko Polio Elkarteak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute.

“ Euskal Parlamentuko talde guztiek, oraintsu, post-polio sindromeak jota daudenen arretarako EZ LEGEZKO proposamenaren Transazioko Zuzenketa aurkeztea onartu zuten, besteak beste ondorengo ataletan.

1. Euskal Parlamentuak, Osakidetza osasun portaeren gida bat lantzerantz premiatzen du, diagnosi jarraibideak, Neurologi espezialisten arretaz eta erreabilitaziorako tratamenduekin post-polio ondorio eta sindromeak duten gaixoen arretarako.

2. Euskal Parlamentuak Seguritate Sozialari, Post-polio Sindromea aintzat har dezala eskatzen dio, eta gaixo bakoitzaren egoera balora dezala bakoitzak ditun kalteetan okertzerik eman den, ezintasunaren sakontze bat egon ote den jakiteko.


Horregatik eskatu nahi dugu:

- Euskal Gobernuak Osasun Departamentuari post-polio sindromea ORPHA 2492 kodigoan, beraz, EERR lez kontsideratua egonik Euskal Gobernuak argitaratutako EERR katalogoan sar dezala eskatzen diogu.

- Espainiako Gobernuari post-polio sindromea , mintsu eta gaitasun ezaren eragile kontsidera dezala eskatzen diogu, era berean ezgaitasunen balorazio sistema/baremoan sartuaz.

- Espainiako Gobernuari, abenduaren 4ko RDko 1.go artikulua 1851/2009 alda dezala eskatzen diogu. Bertan ezgaitasuna duten langileen erretiro edo jubilazioa erregulatzen da, eta erretiratzeko sasoian, sendagile baten txostenak sostengatuz %45eko ezintasuna edukitzea, nahikoa izatea eskatzen da.

- Espainiako Gobernuari, moldaketa hauek Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioei aplikatu diezaietela eskatzen diegu. Hauek, Clases Pasivas deituriko erregimenean, kokaturik daude.



Usurbilgo Udala

EPE-Euskadiko Polio Elkartea-, FEAPETeko bazkide izanik, Udaletxe honetako Plenoari, gaur internazionalki polioa gogoratzen den egunean, poliomielitisdunak aintzat hartuaz publikoki bere babesia adieraz diezaien eskatzen diogu.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

7.- MOZIOA: URBIL INGURUKO BIDEGORRI-ZATIAREN INAUGURAZIOA.

Hasteko, batzarkideek puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.


Alkateak mozioari buruzko azalpenak eman ditu. Mozio hau aurkezpen ekitaldi batetik datorrela esan du. Prentsa bidez jakin dutela azaldu du abenduaren 2an Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatu Marisol Garmendiak eta Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek aurkezpen ekitaldi bat egin zutela bizikletaz Usurbilgo udalerrian, eta hori gutxi balitz, bidegorri zati horren obra egin ahal izateko lur horien lagapena Usurbilgo Udalak egin zuen. Beraz, inaugurazio hori egin da Usurbilen eta Usurbilek utzitako lurretan. Beraien harridurarako, udal honi inaugurazio horren berri ez zaio jakinarazi eta, beraz, ekitaldi horretan parte hartzeko aukerarik ere ez zaio eman. Errespetu falta bat iruditu zaiela esan du.

Jarraian, mozioaren 3 puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du azkenaldian asko hitz egiten ari direla bidegorri honi buruz. Aipatu du azken plenoan Lasarte-Oriako Udalak egindako eskaera bati ezezkoa eman zitzaiola eta emandako erantzun horren arrazoi nagusia izan zela Aldunditik ez genuela erantzunik jasotzen bidegorri honi buruz egindako eskaerari.

Gai honekin hiru aldiz izan dela Diputazioan esan du eta jaso duen erantzuna izan da pasa den legealdian onartu zutela Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plan Sektoriala eta plan honek bi epe dituela, bakoitza lau urtekoa. Lehenengo laurtekoan, datorren urtean hasiko dela dio Lasartetik Txikierdira doan zatia eta Txikierditik Santuenerako zatia bigarren laurtekoan egitea aurreikusten dela azpimarratu du. Bigarren laurtekoa 2018tik 2022ra artekoa dela esan du.

Mozioaren 3 puntuak banan banan bozkatzea eskatu du.



Usurbilgo Udala

Lehenengo puntuari dagokionez adierazi du ez dakiela jakingo ote zuten baina jakin beharra zeukatela bidegorri hori egiteko Usurbilgo Udalak lagatako lurra zela, eta hori akats izugarria iruditzen zaiola adierazi du.

Lehenengo eta hirugarren puntuarekin ados dagoela esan du.

Bigarren puntuarekin ez dagoela ados esan du, zeren era berean Udalak ere jakin beharko lituzkeelako epe horiek, lehen esan bezala, Txikierdi-Santuenea zatia 2018tik 2022rako laurtekoan egitea aurreikusita baitago.

Alkateak Fermin eskertu du Diputazioan galdetu izanagatik eta mugitu izanagatik, eta jarrera zintzoa eta aktiboa eduki duela iruditzen zaio.

Fermin-ek esan duenari buruz aurreko plenoan Lasarte-Oriako Udalari ezezkoa eman zitzaioela, azpimarratu du ezetz partzial bat eman zutela, zeren lehenengo puntuan esaten baitzuten Udalak ez zuela trabarik jarriko tramitazio urbanistikoari zegokion neurrian. Bestalde, azpimarratu du hirugarren puntuan esaten zutela lankidetzaren instituzionalaren bidetik aukera ikusten zutela eta aurrera jo beharra zegoela, eta hori prestasun osoa zutela. Beraz, momentuan egoerak eskatzen zuen erantzun bat eman zutela esan du, baina ez zutela inola ere atea ixten akordioetarako eta soluzio bide bat bilatzeko.

Gaurko mozioaren bigarren puntuari buruz Ferminek esan duenaren inguruan, egia dela dio plan horrek zatiak dituela, baina Diputaziora joan direnean gai honi buruz interesatzera eta premiak eta beharrak azaltzera, jaso duten erantzuna ez da izan "2017an ezin dugu egin, baina 2018an gauzak aurreratzen hasiko gara" edo jarrera egoki bat, topatu dutena izan da aurrera egiteko gogorik edo asmorik ez bat. Hori dela kezkatzen dituenaz azpimarratu du.

Mozioko puntuak banan banan bozkatzeari buruz ados dagoela dio. Hala ere, bigarren puntuari buruz esaten duenari buruz adierazi du alkatea bera prest dagoela, eta nahi badu Ferminekin, Diputaziora joateko departamentu horrekin hitz egitera gai hau elkarrekin tratatzeko. Komunikazio arazo nabarmen bat dagoela uste du, zeren pertsona horiek garbi baitakite zati hori Usurbilgo zatiari dagokiola. Kontutan hartu behar dela dio Departamentu horrek luzatu ziola Udalari lagapena egiteko eskaera 2015eko uztailan.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi dio prest dagoela beraiekin batera Aldundira joateko. Hala ere, garbi utzi du Aldundia epeak betetzen ari dela.

Alkateak esan du beraiek atea irekita utzi zutela, hau da, eskaera bat egin zuten premia ikusten dutelako. Aurrera egiteko nola egin zezaketen eskatzen zuten, konpromisoa izan zitekeen, adibidez, ordenatze bat egitea, "hau egiten dugunean



Usurbilgo Udala

hurrena hau etorriko da”. Borondatea, jarrera egoki bat eta lankidetzarako prestasun bat da eskatzen dutena.

EAJ-koei ere bilera horretara etortzeko aukera eman die.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du egia dela 2013an Batzar Nagusietan, aho batez, zortzi urterako garapena onartu zela, baina konpromezu horiek bete ahal izateko baliabideei ere eutsi egin behar zaiela esan du. 14 milioitik 1,8 milioira jaisteak garapen horren konpromezuari ez dakiela dio zein mailetan eusten zaion.

Fermin Orue-Echevarriak esan du orain arte behintzat konpromezuak betetzen ari direla.

Batzarkideek, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa onartu dute, honela dio:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak Urbil inguruko bidegorri-zati bat inauguratu zuen 2016ko abenduaren 2an. Inaugurazio-ekitaldian izan ziren Marisol Garmendia, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatua, eta Jesus Zaballos, Lasarte-Oriako Alkatea.



Inaugurazio-ekitaldi horren harira, honakoa adierazi nahi dugu:

- Inauguratutako zatia oso-osorik dago Usurbilgo udalerrian.
- Pentsaren bidez jakin dugu inaugurazio horren berri. Inor ez da Usurbilgo Udalarekin harremanetan jarri ekitaldi horretan parte hartzeko.
- Zati horretako obrak egin ahal izateko, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako sailak dohainik lurra lagatzeko eskaera egin zion Usurbilgo Udalari, 2015eko ekainaren 26an.
- 2015/0718 dekretuan Usurbilgo Udalak 1454 m²-ko lagapena onartu zuen, 2015ko abuztuaren 6an. Hala burutu ahal izan da obra hori.



Usurbilgo Udala

Horiek horrela, Udalbatza plenoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

1- Usurbilgo udalerriko lurretan bidegorriaren aurkezpena egin eta Udal honi jakinarazpenik ez luzatzeagatik, gure kexua adierazi nahi diegu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lasarte-Oriako Udalari.

2- Usurbili dagokion bidegorria, Txikierdira arteko zatia izan ezik, egiteke eta planifikatzeke dago oraindik. Gipuzkoako Foru Aldundian sarritan eskatu arren, honek ez die Usurbilgo Udalaren eskariei erantzun. 2013an, Batzar Nagusietako talde guztiek aho batez onartu zuten Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plan Sektoriala. Horren arabera, zortzi urtetan, urtero 14,5 milioi euro inbertituta, oinarritzko bidegorri-sarea osatu behar zen Gipuzkoan. 2016an inbertsioa 2,3 milioikoa baino ez da izan; eta 2017ri begira aurreikusitakoa, berriz, are txikiagoa da: 1,8 milioikoa. Bidegorri Sare osoa egiteko konpromisoa berresteko eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta Usurbilen egiteko dauden zatiei, lehentasun erabatekoa emateko.

3- Usurbilgo herriarenganako errespetua eskatzen dugu. Ez da gizabidezkoa, ez politikoki ez eta pertsonalki ere, Usurbilgo lurretan bidegorria estreinatu eta Udalari inolako jakinarazpenik ez luzatzea. Irekiera hau interes propagandistiko hutsezkoa izan da, alderdi interesei erantzuten diena eta ez herrien interesei. Horregatik, eta berriz gerta ez dadin, Udal honen kexua luzatuko diegu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lasarte-Oriako Udalari, baita herri eta eskualdeko prentsari ere, gertatutakoaren berri emanez.”

Mozioa puntuz puntu bozkatu da:

1. eta 3. puntuak aho batez onartu dira:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

2. puntua gehiengoz onartu da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.



Usurbilgo Udala

8.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak bihar eguerdiko 13:00ean izango den mokadutxora gonbidatu ditu batzarkideak.

Mirari Azurmendik esan du Ugartondoko eremuko garapenaren hitzarmen borradorea aurkeztu zitzaizela iraileko hirigintza batzordean eta sinatutako hitzarmenaren kopia eskatu du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:58etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.